# INFORMACIÓN DE LA CADENA ALIMENTARIA (ICA): IMPORTANCIA Y OBLIGACIONES LEGALES



De acuerdo con el **Real Decreto 361/2009**, la persona titular de la explotación deberá proporcionar al matadero la Información de la Cadena Alimentaria (ICA) correspondiente a los animales enviados para sacrificio.

## ¿Qué es la ICA?

La ICA o Información de la Cadena Alimentaria es una declaración responsable de los/las titulares de la explotación ganadera, donde se recoge el conjunto de datos que debe facilitar al matadero sobre los animales de producción destinados a sacrificio. Incluye los datos de la explotación que son relevantes para garantizar la seguridad alimentaria, la sanidad animal y el bienestar durante el sacrificio.

La ICA permite al operador/a del matadero y a los Servicios Veterinarios Oficiales del matadero organizar el sacrificio, realizar las inspecciones necesarias y dictaminar la aptitud para el consumo humano de la carne.

## ¿Por qué es importante la ICA?

1. **Garantiza la seguridad alimentaria**
La ICA proporciona la información necesaria para prevenir riesgos sanitarios y asegurar que la carne producida sea segura para el consumidor final.

2. **Facilita el trabajo del matadero y de los Servicios Veterinarios Oficiales**
Ayuda a determinar el tipo de inspección que requiere cada animal o lote, mejorando la eficacia del control sanitario.

3. **Mejora la trazabilidad**
Permite conocer el historial del animal desde su origen hasta el sacrificio, cumpliendo con los requisitos europeos de trazabilidad alimentaria.

4. **Contribuye a la prevención de enfermedades**
La UE exige un enfoque preventivo en sanidad animal, donde la ICA es un pilar fundamental.

Todo ello debe estar claramente registrado y disponible cuando lo solicite el matadero o la Autoridad Competente.

## ¿Qué debe incluir la ICA?

- Identificación del animal o lote
- Estado sanitario
- Tratamientos veterinarios y sus periodos de retirada
- Resultados de análisis relevantes
- Información sobre alimentación y manejo
- Declaración firmada por el/la titular de ausencia de riesgos conocidos

## Obligaciones legales de titulares de explotación

Para cumplir con la ICA, la persona titular debe:

### Garantizar el buen estado del animal

Incluye identificación, salud, bienestar y procedencia sin restricciones sanitarias. La persona titular debe asegurarse de que los animales:

- Estén identificados correctamente.
- No procedan de zonas con restricciones sanitarias.
- Estén limpios y en condiciones adecuadas de bienestar y salud.

### Mantener registros actualizados

Sobre tratamientos veterinarios, alimentación, manejo y medidas sanitarias.

### Entregar la ICA antes del sacrificio

El/la operador/a de matadero está obligado/a a solicitarla, verificarla y actuar en consecuencia; por ello es imprescindible entregarla correctamente y en plazo.

- **Plazo general**: entregar la ICA antes o con los animales al llegar al matadero.
- **Plazo estricto de 24 h antes, en casos específicos**:
  - Para animales con tratamiento reciente (últimos 30 días).
  - En explotaciones sospechosas o sujetas a control.
  - En programas oficiales de vigilancia/erradicación
  - Tras decomisos elevados.

PUNTO CRÍTICO
Si los animales llegan al matadero sin la información sobre la cadena alimentaria, el/la operador/a debe comunicarlo al Servivio Veterinario Oficial que podrá autorizar el sacrificio pero la carne no será apta para consumo humano hasta recibir dicha información. Si no se recibe en 24 horas desde la llegada del animal, la carne será declarada no apta para consumo humano.

### Facilitar toda información relevante para la inspección

La información de la cadena alimentaria, entre otros aspectos, se tendrá en cuenta para establecer la aptitud o no de la carne para el consumo humano.

PUNTO CRÍTICO
Las Autoridades Competentes adoptarán medidas cuando la documentación o información de los animales sea incorrecta o pretenda inducir a error al Veterinario Oficial.

## ¡RECUERDA!

**La ICA NO es un trámite burocrático**, sino una herramienta esencial que protege:

- Tu explotación.
- La sanidad animal.
- La salud pública.
- La confianza de personas consumidoras.

**Cumplir con ella es una obligación legal y una responsabilidad profesional.**

# ELIKAKATEAREN INFORMAZIOA (EKI): GARRANTZIA ETA LEGEZKO BETEBEHARRAK



**361/2009 Errege Dekretuaren** arabera, ustiategiaren titularrak hiltegira helarazi beharko du hiltzera bidalitako animaliei dagokien elikakatearen informazioa (EKI).

## Zer da EKI?

EKI edo elikakatearen informazioa abeltzaintza-ustiategiko titularraren erantzukizunpeko adierazpena da. Dokumentu horretan, hiltegira bidaliko diren ekoizpen-animaliei buruzko informazio garrantzitsua jasotzen da. Zehazki, elikadura-segurtasuna, animalien osasuna eta hilketaren unean animalien ongizatea bermatzeko beharrezkoak diren ustiategiari eta animaliei buruzko datuak biltzen ditu.

EKIari esker, hiltegiko operadoreak eta hiltegiko Albaitaritza-Zerbitzu Ofizialek hilketa antola dezakete, halabeharrezko ikuskapenak egin ditzakete eta haragia giza kontsumorako gai den zehaztu dezakete.

## Zergatik da garrantzitsua EKI?

1. **Elikagaien segurtasuna bermatzen du**
EKIak halabeharrezko informazioa ematen du osasun-arriskuak prebenitzeko eta ekoitzitako haragia azken kontsumitzailearentzat segurua dela ziurtatzeko.

2. **Hiltegiko lana eta Albaitaritza-Zerbitzu Ofizialena errazten du**
EKIari esker, animalia edo lote bakoitzaren ikuskapen-mota zehatz daiteke, osasun-kontrolaren eraginkortasuna hobetuz.

3. **Trazabilitatea hobetzen du**
Animaliaren historiala jatorritik sakrifiziora arte jarraitzeko aukera ematen du, elikagaien Europako trazabilitate-eskakizunak betez.

4. **Gaixotasunak prebenitzen laguntzen du**
EBk prebentziozko ikuspegia eskatzen du animalien osasunaren arloan, zeinetan EKIa oinarrizko zutabea den.

Hori guztia argi eta garbi erregistratu behar da eta eskura egongo da hiltegiak edo Agintaritza Eskudunak eskatzen duenean.

## Zer izan behar du EKIak?

- Animaliaren edo lotearen identifikazioa
- Osasun-egoera
- Albaitaritzako tratamenduak eta kentze-aldiak
- Analisi aipagarrien emaitzak
- Elikadurari eta maneiatzeari buruzko informazioa
- Titularrak sinatutako adierazpena, arrisku ezagunik ez dagoela aipatzeko

## Ustiategiko titularren legezko betebeharrak

EKIa betetzeko, titularrak honako hauek bete beharko ditu:

### Animaliaren egoera ona bermatzea

Haren identifikazioa, osasuna, ongizatea eta jatorria egiaztatuz, eta osasun-murrizketarik ez duela ziurtatuz. Egiaztatu behar da animaliak:

- Behar bezala identifikatuta daudela.
- Osasun-murrizketa duten eremuetatik ez datozela.
- Garbiak daudela eta ongizate- eta osasun-baldintza egokiak dituztela.

### Erregistroak eguneratuta eduki

Albaitaritza-tratamenduei, elikadurari, maneiuari eta osasun-neurriei buruzko erregistroak eguneratuta edukitzea.

### EKIa entregatzea hil baino lehen

Hiltegiko operadoreak nahitaez eskatu, egiaztatu eta horien arabera jardun beharko du; horregatik, ezinbestekoa da behar bezala eta epearen barruan entregatzea.

- **Epe orokorra**: EKIa animaliak hiltegira iritsi aurretik edo animaliekin entregatzea.
- **24 ordu lehenagoko epe zorrotza, kasu berezi hauetan:**
  - Berriki tratamendua izan duten animalientzat (azkeneko 30 egunak).
  - Susmopeko ustiategietan edo kontrolpean daudenetan.
  - Zaintza eta desagerrarazte programa ofizialetan.
  - Konfiskazio ugarien ondoren.

PUNTU KRITIKOA
Animaliak elikakateari buruzko informaziorik gabe iristen badira, operadoreak Albaitaritza-Zerbitzu Ofizialari jakinarazi beharko dio, eta honek hiltzea baimendu ahalko du, baina haragia ez da giza kontsumorako gaituta egongo informazio hori jasotzen ez den bitartean. Animalia iristen denetik 24 ordutan jasotzen ez bada, haragia giza kontsumorako ez-gai aitortuko da.

### Informazio aipagarri guztia ematea ikuskapenerako

Elikakatearen informazioa, besteak beste, kontuan hartuko da haragia giza kontsumorako gai den ala ez erabakitzeko.

PUNTU KRITIKOA
Agintaritza Eskudunek neurriak hartuko dituzte animalien dokumentazioa edo informazio zuzena ez denean edo Albaitaritza-Zerbitzu Ofiziala akatsera eraman dezakeenean.

## GOGORATU!

**EKIa EZ da izapide burokratiko bat,** funtsezko tresna baizik honako hauek babesteko:

- Zure ustiategia.
- Animalia-osasuna.
- Osasun publikoa.
- Kontsumitzaileen konfiantza.

**EKIa betetzea legezko betebeharra da, bai eta lanbide-erantzukizuna ere.**

araba foru aldundia / diputación foral
Bizkaia foru aldundia / diputación foral
Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa
elika Fundación Vasca para la Seguridad Agroalimentaria / Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa
EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO
ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA